

LEHEN HEZKUNTZA IRAKURKETA GIDA

EIE Euskal Idazleen Elkartea




Oharra: hemen topatuko dituzue idazleek egindako zenbait gomendio.
Halere, gida honetan agertzen ez den libururik landu nahi baduzu, “Saioak eskatu” atalean aukeragarri izango dituzu beste asko.



MARTIN **ALAINE AGIRRE**

DESBERDINTASUNA
BAZTERKERIA
INTEGRAZIOA

Martin desberdina da. Hala esaten dute denek. Gauzak egiteko bere modua daukalako, edo gehiago kostatzen zaiolako. Baina kontalariak badaki Martin ez dela arraroa, normala dela eta maitagarria... nahiz eta berezi samarra izan.



ARMIARMAK **PARAPENTEAN** **MARIBEL AIERTZA**

HAUR LITERATURA

Kuluku gainean haize leun gozo batek orrazten ditu belar eta zuhaixkak. Lekua eta eguraldia aproposak dira parapenteak probatzeko eta horretarako daude hantxe Gabriela eta Abelardo armiarma pareak.



ASTEBURUA **LANDETXEAN** **MARIBEL AIERTZA**

HAUR LITERATURA

Labegarai ikastetxeko LH4 eta 5eko ikasleak irrikaz zeuden asteburua landetxean igarotzeko. Gehienak kalekumeak ziren, mendian gutxi ibilitakoak. Asteburu bakar batean, ordea, beren bizitzako abentura biziko dute kobazulo batzuen barna. Zientzia fikziozko istorio bat bizitzen ari direla irudituko zaie.



TXIROLO **MARIBEL AIERTZA**

GARAPEN PERTSONALA
GATAZKEN
KONPONKETA

Urko ez da etxe normal batean bizi; belaontzi batean bizi da gurasoekin. Pozez hartu zuen aldaketa, oportrean bezala biziko zelakoan beti. Baina eskolako mutil berriak, Aitzol harroputzak, zerbait jakin zuenean, iseka eta irain gerra gordina hasi zuen haren aurka.

(10-12 urte)



IPUIN KONTAKETA **PELLO AÑORGA**

HAUR LITERATURA

Badakizu zenbat hatz dituen Paulak? Bat, bi, hiru, lau, bost... eta sei! Sei hatz, bai, eta seigarren atzamar horrek ahalmen bereziak ematen dizkio, besteek pentsatu baina esaten ez dituzten gauzei igartzeko.

(10 urtetik aurrera)



ASTROAK GARA **PELLO AÑORGA**

ARRAZAKERIA
INTEGRAZIOA

Arrosa da ipuin honetako narratzailea eta protagonistetako bat. Bosgarren mailan dabil eta aurtengo ikasturtea oso berezia izan da gauza asko gertatu zaizkiolako, batez ere Banbari eta Joxeri esker. Banba gelara iritsi zenean hasi zen dena




MARTZELO ITSUA **PELO AÑORGA**

HAUR LITERATURA

Martzelo haur itsu bat da. Halere, nahiz eta itsua izan eta begiak erabili ez beste hurrek bezala, oso ondo baliatzen da gainontzeko zentzuekin; esan nahi da eskuekin edo belarriekin.

(10-12 urte)



AFRIKAKO SEMEA **AITOR ARANA**

HAUR LITERATURA

XVIII. mendean europarrak izenik gabeko bidegabekeria bat egiten ari ziren: gizaki afrikarrak hartu eta Amerikara eraman, han plantazioen jabeek lanerako esklabo moduan eros zitzen.



KLAUDIA ETA BALOIEK **SEKRETUA** **AITOR ARANA**

HAUR LITERATURA

Kludia neska futbolzalea da, baina neskei futboleak jokatzen uzten ez dieten garaian bizi da.

Hala ere, gure neskatoak ahalegin bereziak egingo ditu gurasoei eta mutikoei erakusteko berak ere futboleak egiteko eskubidea duela. (10-12 urte)



URTEGI MISTERIOITSUA AITOR ARANA

**HAURRENTZAKO
LITERATURA**

Mikeli Iker anaia urtegian ito zitzaionetik, etxeko txakurrak itotako anaiaren izenean hitz egiten dio. Baina mutikoari inork ez dio sinesten hildako anaiak txakurraren bidez hitz egiten dionik. Mikel, horregatik, helduekin beti haserre biziko da.

(10-12 urte)



GABONETAKO IPUINAK TXAPELPUNK

**HAURRENTZAKO
IPUINAK ETA KANTAK**

Euskal Herriko geografian garatzen diren euskarazko ipuinen bilduma da eta magia eta abenturaz beteriko istorioak kontatzen ditu.




IPUIN HUNKIGARRIAK TXAPELPUNK

**HAURRENTZAKO
IPUINAK ETA KANTAK**

Emozioz, abenturaz eta musikalitatez beteriko liburua. Hiru ipuin eta 10 abesti, modu ezberdinean bidaiatu eta ipuinen magia sentiaraziko dizutenak.

LEHEN HEZKUNTZA



HARRESI HANDIRANTZ JON ARRETXE

ABENTURA


Rama gaztetxoak Asia zeharkatu beharko du Txinako Harresi Handian ezkutaturik omen dagoen altxor baten bila



MIREN NUNCA MAIS PAKO ARISTI

**AUTONOMIA ETA
SUPERBIBENTZIA**

Ume bat depresioarekin dago, eta gurasoek aito-na-amonen baserrira bidaltzane dute aste bat pasatzera.



SCOTT BARBERENAREN BIZITZAKO LEHEN PAUSUAK PAKO ARISTI

**GAIXOTASUNA ETA
IRUDIENA**

Miren gurasoekin Santiagora joan da oporretan, eta lehen egunean galdu egingo da.



**TXABOLA
TERAPEUTIKOA
PAKO ARISTI**

**DEPRESIOAREN
AURKAKO SENDAGAIA**

Ume bat depresioarekin dago, eta gurasoek aitona-amonen baserrira bidaltzane dute aste bat pasatzera.



**ZAZPI PERTSONAIA
ISTORIA BILA
YOLANDA ARRIETA**

NARRAZIOA

Jon eta bere arreba txikia, Amaia. Jonek bere lekua nahi; Amaiak dena nahi: lekua, objektuak..., irudimen handia daukalako, baina horrek arazoak sortzen ditu. Irakurleak aukeratuko du nahi duen amaiera.
(7-10 urte)



**MARI GONAGORRI ETA
HAMAZAZPI BERRI
YOLANDA ARRIETA**

IPUIN ILUSTRATUA

Saguak ezin du lan egin. Nori eskatu oparia hortza erortzean?

(6-8 urte)



TXOPO **GAIZKA AROSTEGI**

**LAGUNTASUNAREN
GARRANTZIA**

Jonek berri triste bat jasotzen du bere hamargarren urtebetetzean. Hugo, bere lagunik kuttunena, hiltzear dago ospitalean. Gaixoak atezain izan nahi zuen eta ez omen du Jose Anjel Iribar, Txopo handia, Athletic taldeko kapitaina ezagutzeko bere ametsa beteko.



NERBIOIKO PIRATAK **GAIZKA AROSTEGI**

**HAUR ETA GAZTE
LITERATURA**


Jonek eta bere lagunek pirata bilakatzeko erabakia hartzen dute pelikula bat ikusi ondoren. Horretarako bapore zahar batera igo eta Nerbioian behera abiatzen dira Karibera heltzeko asmoz. Abenturak, arriskuak eta bizipenak ez zaizkie faltako bidaia horretan.



KARLISTEN ALTXORRA **GAIZKA AROSTEGI**

**HISTORIA ETA
ABENTURA**

Alex eta Irati, oso ezberdinak diren gazteek, karlisten altxorra galduta non dagoen azaltzen duen gutun zahar bat aurkitzen dute Baztan aldean. Baina haiek ez dira jakinaren gainean dauden bakarrak eta bilaketa oso kontu arriskutsua bilakatuko zaie.



HANKAZIKIN PABLO BARRIO

**HERIOTZA
FAMILIA
LAGUNTASUNA**

Hankazikin esaten dioten umea hiltzen da eta Herioarekin egiten du topo. Arraioa! Zer egin behar da horrelakoetan? Herioak, maite dituenen memorian bizirik jarraitzeko, bere bizitzaren hainbat pasarte antzeztea proposatuko dio. (10 urtetik aurrera)



IZENA DUENA OMEN DA ARITZA BERGARA

EUSKAL MITOLOGIA

Gure mitologiaren pertsonaien aurkezpen laburra eta bideoak dira.



IPUIN KONTAKETA MAITE FRANKO

**AHOZKO IPUIN
KONTAKETA**

Maite Franko (Irun-Hondarribia, 1971), txipiroi-arrantzale eta lehorreko lamia baten zazpigarren alaba da. Antzerkigintza, irakaskuntza, bikoizketa eta literaturaren ur handietan oinak bustitakoa dugu. 2004 urteaz geroztik, ipuin-kontalaritzaren ozeano barean dabil!



VALERIUM TREMENS BILDUMA ETXEBERRIAK

**EUSKAL MITOLOGIA
ABENTURA
FANTASIA**

Valerium Tremens hamahiru urteko neskato amerikarra gurasoekin batera Euskal Herrira etorri da. Martin eta Sararekin batera, lagun taldea osatuko du gaztetxoak, eta adiskidetasunari, maitasunari eta beste hainbat gairi lotutako abenturak biziko dituzte elkarrekin.



EZ DUT TXERRIKUMEA IZAN NAHI ENEKO ETXEGARAI

IDENTIDADEA

Txerriak ez du txerri izan nahi. Bidai harrigarria hasten da indentitateren bila.

(7-9 urte)



HAU BAI ISTORIO BITXIA! ENEKO ETXEGARAI

HAUR LITERATURA

Sinopsis de HAU BAI ISTORIO BITXIA!

Ez da erreza istorio bat asmatzea, eta batzuetan, ez da zaila. Batzuetan bakarrik sortzen da, besteetan aldiz denbora gehiago darama.

(7-9 urte)



ILUNPEAREN SEKRETUA ENEKO ETXEGARAI

ALBUM - KOMIKIA

Aiuri umeak iluntasunari beldurra handia dio muntro asko agertzen direlako, baina konponbidea aurkituko du.



AMAIUR AMAIA ELIZAGOIEN

AMAIURKO GUDA


Amaiur, ipuina, iraganera eginen dugun bidaia ttipi bat da. Herri batez baino gehiago, herritarrez mintzo dena. Zenbait lagun bitartez, aspaldiko kontuak jaso ahalko ditugu; gerra gertutik ezagutu zutenena, egun batetik bestera bizitza aldatu zitzaienena...



ANIMALIAKERIAK JON EUGI

HAUR LITERATURA

Baserrira iritsi gara. Atarian katua eta txakurra topatu ditugu. Katua baserriko beheko leihoan etzanda dago, eguzkiaren berotasuna jasotzearen. Txakur txikia, artzai txakur arrazakoa, guregana etorri da. Zein polita den! Denon ferekak jaso nahi ditu.



PIRATEN UHARTEA
JON EUGI

ABENTURA

Piraten uhartea nobelak pirata euskaldun batzuek Karibe aldean izango dituzten gorabeherak kontatzen ditu. Beraiekin hamaika abentura biziko dituzu, irakurle: abordajeak, espetxe ihesak, urrezko altxor baten lapurreta...




IZAROKO ALTXORRA
IÑAKI FRIERIA

GAZTEEN ABENTURAK

Lapur batzuk plan bat prestatzen ari dira Izaroko uhartean omen dagoen altxor bat lapurtzeko. Elantxobeko hiru gaztetxo eta beren txakurrak hankaz gora jarriko dute plana.

(LH5 -LH 6)



ASKA ITZAZUE
POTTOKAK
IÑAKI FRIERIA

GAZTEEN ABENTURAK

Lapurdiko Sara herriraino bisitan joan eta hango mendietan "libre" bizi diren pottoken inguruko abentura batean sartuko dira hiru lagun eta haien txakurra.

(LH5 -LH 6)




**TRIANOKO
GAU GORRIAK
IÑAKI FRIERIA**

GAZTEEN ABENTURAK

Gaua gorriz tintatzen duen ezkutuko mundua ezagutuko dute hiru lagunek haien txakurra lapurtu eta hura salbatzeko plana prestatzen dutenean.

(LH5 -LH 6)



**METRO BATEKO LETRAK
JULEN GABIRIA**

HAUR LITERATURA

Metroa matxuratu egin da eta inor ezin da handik irten. Nadia, Ahrud... inor ezin da handik irten. Eta, denbora pasatzearren, jolas bat asmatzen dute: alfabetoko letra bakoitzarekin, istorio bat kontatu behar dute.

(LH4-LH5-LH6)



**NIRE AITA IKUSEZINA DA
JULEN GABIRIA**

**GIZONTASUN-EREDUEI
BURUZKO ISTORIO
KOMIKOA**

Elenek neba jaioberria du: Xabat. Baina, nebatxoa jaiotzen denetik, Elene fenomeno harriarri batez konturatu da: inork ez du bere aita ikusten. Ikusezin bihurtu da! Elene edozer egiteko prest dago egoera hori konpontzeko, ez beti onerako...


(LH4-LH5-LH6)



ESKETXAK AIZPEA GOENAGA

ANTZERKIA


Antzezlanak irakurri, pertsonaiak sortu, talde lana burutu, eta testu horiek ahoz gora egin, ahozkerara, doinua, eta batez ere, testuaren esan nahia ulertzeko tresnak eskainiz.



NI EZ NAIZ TXOTXOLO AIZPEA GOENAGA

**GENERO IKUSPEGIA,
ATZERRITARREN
INTEGRAZIOA**


Literatura dramatikoak, ikasleengandik gertuen egon daitekeen idazketa literarioa da. Antzerkia irakurtzea beharrezkoa da antzerkia egin ahal izateko.



LAUTERDI PIRATAREN ALTXORRA AIZPEA GOENAGA

ABENTURA

Erraz irakurtzeko modukoa. Neska mutil baten abenturak eta tartean euskal kostaldeko piraten abenturak nahastuko dira.



LATZA ETA GARRATZA SAMUEL GONZALEZ

**HASERREAREN
KUDEAKETA**

Gorila Txiki bere lagunarekin haserretu da. Etxerako bidean, animalia ezberdinekin egingo du topo eta, haiei ezker, baretzea eta berriro adiskidetzea lortuko du. Bizitzak ezinbestez dakartzan frustrazioei aurre egiten ikasteko ipuin ilustratua. (LH2-LH3)



MOBILAK ARANTZA IBARRA

**KOMIKIA
ABENTURAK**

Mugikorrak bizirik daude pila bat abentura bizitzeko eta hainbat pertsonai ezberdin ezagutzeko.

(9-11 urte)



SAIKU DETEKTIBEA ARANTZA IBARRA

FANTASIA, IPUINA

Saiku barraskilo ezberdina da, detektibea bait da eta oraingoan gozoki lapur baten bila ibili beharko da.

(LH1-LH2-LH3)



BEGI BAT KOKOTEAN JUAN KRUZ IGERABIDE

TXIKIKO MEMORIAK

Gipuzkoako herri txiki batean frankismo garaian bizi izandako haur baten memoriak.

(10-12 urte)



ILARGIAREN XUXURLA JUAN KRUZ IGERABIDE

**IMMIGRAZIOA
LAGUNTZA-SAREAK
IPUINA**

Esloveniako basoan hartzak ibiltzen dira; baita iheslariak ere. Siriako gerratik Kroaziatik barrena, ihesi igarotzen da jendea gauero.

(8-12 urte)



NIRE LAGUNEN GEZURRAK JOXEMARI ITURRALDE

HAUR LITERATURA

Gezurrak ez omen dira esan behar. Ezta gezur txikiak ere. Hori esaten digute beti ikastetxean irakasleek eta etxean gurasoek. Baina beti egia esatea oso aspergarria da, saltsa pixka bat gehitu behar zaio bizitzari, eta hori aldi-ka gezurtxo batzuk esanez lortzen da.




MARIMATRAKAK BILDUMA ANA JAKA

**MAGIA, ABENTURA,
AUSARDIA, AKATSAK**

Magia egingo dute marimatrakak, baina zer da magia? Eta zer behar da magia egiteko? Bigarren ipuinean, kobazulo batean sartuko da familia osoa, senide bat izan ezik...

LH3- LH4



IXON ANA JAKA

**KOMUNIKAZIO FALTA,
GURASOEN BANANTZEA**

Ion du benetako izena, baina Ixon deitzen diote beti isilik egoten delako, halako batean, hitz egitea ere ahaztu duen arte. Etxetik joango da orduan, eta abentura harri-garriak ezagutuko ditu gero, basoan topatzen dituen rock musikari batzuen eskutik.

LH3- LH4



MARIMUTILLA NAIZ, ETA ZER? ANA JAKA

**BERDINTASUNA,
AHALDUNTZEA**

oneri marimutilla deitu diote eskolan. Futbolean jokatzeko duelako, ile motza darabilako. Berari bost axola: gustatzen zaizkion gauzak gustatzen zaizkio, eta kitto. Izeba Naiararen ezkontzarako, ordea, arazo bat sortuko da, gurasoek soineko bat jantzarazi nahi baitiote Ioneri.

LEHEN HEZKUNTZA



**LEHENENGO MUSUAREN
ZAIN
ANTTON KAZABON**

HAUR LITERATURA

Uxue eta Aimarren arteko
maitasun kontuak

LH2-LH3



**EMILIREN
DESABENTURAK
ANTTON KAZABON**

HAUR LITERATURA

Emiliren pasadizo
barregarriak

LH2-LH3




**KATIXA DORRE
MAGIKOAN
ANTTON KAZABON**

HAUR LITERATURA

Nexka ausart baten abentura
harrigarria.

LH2-LH3




**HIZKIEN ALDE
MANIFESTUA
GOIATZ LABANDIBAR**

MANIFESTU BAT

rakurtzearen eta idaztearen aldeko manifestua da album ilustratu hau, haurrentzako pentsatua, literaturaz gozatu dezaten

LH2-LH3- LH4



**ANNA KOPEK ETA
MATRIOXKAREN
KONDAIRA
HARITZ LARRAGETA**

**ANAI-ARREBA BIREN
ABENTURAK MUNDUAN
ZEHAR**

Uxueren eta Jokinen ama kazetaria da eta, hori dela eta, bidaiatzea tokatzen zaie maiz. Baina, honako honetan, ezohiko abenturak biziko dituzte eta Moskuko kaleetan arriskuari aurre egin beharko diote.

LH5- LH6



NOBEDADEA
Azalarik ez dago
oraindik.
Udazkenean
argitaratuko da.

**ANNA KOPPEK ETA
ERREGINAREN EDABEA
HARITZ LARRAGETA**

**ANAI-ARREBA BIREN
ABENTURAK MUNDUAN
ZEHAR**

Moskun bizitako abentura ahaztezinaren ondoren, oraingo honetan, Kairora eramango ditu Uxue eta Jokin amaren lanak. Bertan, gaur egungo eta antzinako Egipto nahasiko dituen misio baterako laguntza eskatuko die emakume misteriotsu batek.

LH5-LH6



MUNDUKO IPUINAK LUPE LEKUONA

**AHOZKO IPUIN
KONTAKETA**

Lekuetako abenturak, ohiturak eta xeibrekeriak eza-gutzeko aukera izango dute ipuin eta saio desberdinak eskainiz. Kamishibai teknika ere erabiltzen dut batzuetan.

Helburua fantasiaren mundura elkarrekin joatea da.



ITZALEN DAMA ETA PATXI BAKALLU URTZI LEONET

**LITERATURA
FANTASTIKOA
EUSKARAZ**

Laino Zuri Handiaren Lurraldean iluntasuna da nagusi; Tawhirimatea zeruetako jainkoa haserre dago, eta laino beltz eta ekaitzekin estali du eguzkia. Herri margotua erabat abailduta dago, baina gure protagonisten etorrerak piztu die itxaropenaren sugarra. (LH5-LH6)



7G UDALEKUAK NEREA LOIOLA

**AUKERATU ZURE ABEN-
TURA + SCAPEBOOK**

LIBURU HAU DESBERDINA DA. Istorio honetan gertatuko dena ZURE eskuetan dago. ZU zara protagonista. Arriskuak, dilemak, eta abenturak aurkituko dituzu. Erabakiak hartu beharko dituzu eta enigmak ebatzi. LH5-LH6



AZKEN DENBORA **NEREA LOIOLA**

AUKERATU ZURE ABENTURA + SCAPEBOOK

LIBURU HAU DESBERDINA DA. Istorio honetan gertatuko dena ZURE eskuetan dago. ZU zara protagonista. Arriskuak, dilemak, eta abenturak aurkituko dituzu. Erabakiak hartu beharko dituzu eta enigmak ebatzi. LH5-LH6

HARRI BAT POLTSIKOAN
Nerea Loiola



HARRI BAT POLTSIKOAN **NEREA LOIOLA**

**AUTOESTIMUA,
NORBERE BURUAREN-
GAN KONFIANTZA,
ESKOLA,
HARREMANAK.**

Xanari iruditzen zaio denek egiten dutela dena berak baino hobeto eta triste sentitzen da. Goiz batean, baina, harri urdin bat azalduko zaio poltsikoan eta gauza miragarri bat gertatuko da eskolara bidean...

LH1-LH2-LH3-LH4

HATSAREN POESIA
Olerki Bilduma
2022



HATSAREN POESIA **AINARA MAYA**

**OLERKIAK ETA POESIA
TAILERRAK**


Askok idazten dute bertan, eta orotariko poesia aurki daiteke, baita haurrena ere, edota poeta gazteen poemak ere. Euskal Herri osoko nahiz diasporako 125 poeta.



KATTA BILDUMA **MIREN AGUR MEABE**

HAUR LITERATURA

Helduek irakurtzeko, helduekin irakurtzeko, eta lehen irakurleek aurreneko urratsak emateko pentsatutako irakurgaiak, esaldi labur eta paragrafo neurtuez josiak, horiek apailatzeko, gatza, errimatxoak, hotsitzak, abesti zatiak eta koplaren bat ahaztu gabe.



BIHOTZAK DUN-DUN **MIREN AGUR MEABE**

HAUR LITERATURA

Learen aita langabezian geratu, eta goiko Ixidro zaharra zaintzen hasi da. Neskatxoak harreman hori, eskolako gorabeherak, familiako kontuak, lagunen arteko abenturak eta abar kontatuko dizkigu, baita noizeanbehin izaten dituen bidaiak ere. (10-12 urte)



ERREPIDEA **MIREN AGUR MEABE**

HAUR LITERATURA

Karabana batean bizi bazara, ohituta zaude toki batetik bestera ibiltzen. Ama bere buruarekin berbetan hasten denean, badakit laster hanka egingo dugula. Oihuta nago ia aldi berean kaixo eta agur esaten. Horregatik saiatzen naiz inorekin loturik esturik ez sortzen. Paso. (10-12 urte)



MUNSTRO TXIKIAK BILDUMA XABIER MENDIGUREN

**MUNSTROAK, UMOREA,
ABENTURA**

Bost lagun dira Munstroen Eskolako ikasleak: Hagintxo, Mamutxo, Sorgintxo, Frankitxo eta Neskaotso. Eta haien irakaslea Andereño Herminia. Guztien bizitzak eta komeriak ezagutu ahalko dituzu orain Munstro Txikien istorioak irakurritz.



PRINTZESA TXIZONTZIA XABIER MENDIGUREN

**FANTASIA, BOTEREARI
UKO EGITEA**

Karolina Potolina printzesak bazuen ezaugarri bat, munduko printzesa guztien artean berezia egiten zuena: txizontzi bat zen, beti eta nonahi pixa egin behar izaten zuena, eta horrek hainbat arazo sortzen zizkion,



HIRU TRIKU, HIRU TRUKU XABIER MENDIGUREN

**ABENTURA, ANIMA-
LIAK, NATURA**


Baziren behin hiru triku ume –Kirikiño, Sagarroi eta Kirikolatx–, ama galduta basoan bakarrik gelditu zirenak, ez jateko ez edatekorik gabe. Horregatik erabaki zuten mendiaren beste puntara abiatzea, tipi-tapa, tipi-tapa, basoko bidexendra eta zidoretan zehar, hiri bazterrera iritsi arte.



**NIRE AMAK EZ DAUKA
ERREMEDIORIK
ANTXIÑE MENDIZABAL**

**AMA-ALABA HARREMA-
NAK, ALABAREN
IKUSPEGITIK
KONTATUTA**

Iratik hamabi urte ditu eta oso argi dauzka bere nahiak eta helburuak. Amak, ordea, oso bestelako ideiak ditu gauza askotan; espezial samarra da, xelebrea ez esateagatik. Estutasun bat baino gehiago pasa behar izaten dute aitak eta alabak amaren burutazioekin.



**NIRE ALABAK EZ DAUKA
ERREMEDIORIK
ANTXIÑE MENDIZABAL**

**AMA-ALABA HARREMA-
NAK, AMAREN
IKUSPEGITIK
KONTATUTA**

Iratik hamalau urte ditu eta, denbora asko ez dela, fundamentu handiko neska zen: esanekoa, arduratsua, adeitsua, atsegina, beti umore oneko... Orain, berriz, arropaz beste aldatzen du aldartez.



**PRINTZESA ETA ERGELA
ANTXIÑE MENDIZABAL**

**IKASKIDEEN ARTEAN
ENPATIA ZER DEN
KONTATZEN DUEN
ISTORIOA**

Kariñeri aitak beti deitu izan dio printzesa, eta amamak ere, jaio zenean, printzesa-izena jarri ziotela esaten zien gurasoei. Horregatik jakin nahi izan du betidanik Kariñek benetako printzesa bat ote den.



AMALUR IXABEL MILLET

EUSKAL MITOLOGIA

Amalur mito hau kontatuko dut eta liburuaren aurkezpena, nola sortu zen eta kamishibai formatoaz hitz egingo dut ikasleekin. Euskal mitologia inguruan dudan eza-gutza partekatzea gustukoa dut galderei erantzuten.



MARRUBIZKO UDA KARMELE MITXELENA

**OPORRALDIA
KANPINEAN**

Maitek askotan pentsatzen du bere familia ez dela normala, etxean ez baitituzte, antza, gauza normalak egiten. Oporretan esaterako, karabana zahar bati tiraka, herri galdu bateko kanpin batera joatea besterik ez zaie gurasoei bururatu.




PUKA, ERLEAK ETA TRAKTOREA JOKIN MITXELENA

**NATURA ETA
ABENTURA**

Puka hartzaintxakurra, Marina Mostaza eta beste lagunak mendira doaz traktorearen gurdian sartuta.

Gauzak asko okertzen dira ordea, ezbehar larria gertatzen da, erleak azaltzen dira. Anabasa ulertezina da guzti hau!



**PUKA ETA MATEOREN
OILARRA
JOKIN MITXELENA**

**GIZARTEA ETA
ABENTURA**

Ronaldo, oilar bihurriak,
alde egin du Mateo okina-
ren etxetik eta hor doaz
Puka eta bere lagunak
Ronaldoren bila, herriko
jendea ondo nahaspilatuz



**SAGUZARRAK EGUNEZ
JOKIN MITXELENA**

**ANIMALIAK ETA
ABENTURA**

Betaurreko beltzik bai,
saguzarrok egunez ikusteko?
galdetzen zuten Genobeba
eta Isabela saguzarrek.
Hauek gauz egiten baitute
hegan eta egunez lo. Genobe-
bak eta Isabelak, ordea, mun-
dua ikusi nahi zuten egunez.
Egunez mundua ikusi nahi!

NOBEDADEA
Azalarik ez dago
oraindik.
Udazkenean
argitaratuko da.

**JAJATXO
JABIER MUGURUZA**

**IBERE GABEZIETATIK
ABIATZEN DEN UME
BATEN ABENTURAK**


“Esnatu zen Jajatxo bere
ohean eta saiatu zen gogorat-
zen zer egin zuen bezperan.
Ohi bezala, ez zen ezertaz
oroitzen. Sabaiari begira, ez
zen oroitzen; ohean buelta
batzuk eman zituen, ea, bai-
na bai zera. Sudur handiari
hiru aldiz hazka egin, eta
berdin. Memoria txarrekoa
zen Jajatxo, mekatxo!”



IKER IKERLARIA **XABIER OLASO**

KONTAKIZUNA


Galdetu dizute inoiz zer izan nahi duzun handitan? Ikerrri galdetu zioten behin, eta liburu honetan gorde zuen erantzuna.



ERRALDOIAK **XABIER OLASO**

KONTAKIZUNA

Erraldoi da aita, Maritantai da ama, eta Patxikankailu semea. Erraldoien familia osatzen dute, eta haien bizitzan dena da erraldoia: arropak, janariak, etxeko tresnak... Umorez eta fantasiaz beteriko ipuin bat duzue hau.



GALTZAGORRIAK **DABILTZA ETXEAN** **XABIER OLASO**

KONTAKIZUNA


Ordu txikitan idazten ari zela, lo seko gelditu zen Xabier. Ahots batzuek esnatu zuten bat-batean. Begiak ireki, eta galtzagorri batzuk ikusi zituen ingurumenean. Lau ziren guztira, bihurriak eta jostalariak. Langile prestuak ere baziren, eta buru-belarri lagundu zioten Xabierri liburu bat idazten.



JARA BILDUMA
JASONE OSORO

**NERABETASUNA,
MAITASUNA ETA
ADISKIDETASUNA**

Jarak 13 urte ditu eta hilekoa jatsi zaio. Haurra izatetik nerabe izaterako urrats horretan hainbat bizipen berri korapilatuko ditu: lehen maitasuna eta musua, adiskidetasun leiala eta lagun berriak, arazoak eskolan eta etxean, abenturaz betetako unibertsoa...



**TELINA BANPIROAREN
ETXEAN**
ARANTZA IBARRA

HAUR LITERATURA

Telina neskatoari telebista ikustea izugarri gustatzen zaio. Telinak badu sekretu bat telebista beste era batean ikusteko. Inork ez dakien sekretu baten bidez telebistaren mundu magikoa ezagutuko du.



LITERATURATIK MUSIKARA

ASIER SERRANO

**LITERATURATIK
MUSIKARA**
ASIER SERRANO

**LITERATURA ETA
MUSIKA**

“Literaturatik musikara” saio musikatua eskaintzen dut. Saioa hiru zatitan banatuta dago.



ETXE HONETAN AINTZANE USANDIZAGA

**ELKARBIZITZA,
UMOREA,
BELAUNALDIK**

txean arauak jartzera ohituta dagoen aitaxi baten eta honen egunerokotasuna eta errutina hankaz goiti paratzera datorren ilobaren arteko harremana da gaia. Edonori ezagunak egin ahal zaizkigun egoerak bizitasunez kontatu eta marraztu dituzte autoreek.



EZ DUZU SINETSIKO AINTZANE USANDIZAGA

**LAGUNTASUNA,
FANTASIA, UMOREA**

onek, aitaren etxera bolada batez aldatuta, bere adineko auzokide berri bat du: Samira. Etorri berria ez bezala, hizlaria da Samira, eta berehala hasiko zaizkio eskolakoak eta lagunei buruzkoak kontaktzen.



XIA TENZINEN BIDAIA MIRESGARRIA PATXI ZUBIZARRETA

HAUR LITERATURA

Xia Tenzinek, munduko mendirik altuenetan bizi den munduko gizonik altuenak, ezin du itsasoa ikusi eta ez du aitaren berririk. Horregatik bidaian abiatuko da, eta bidean ekaitz beldurgarriak jasango ditu, eta gobernadore baten maltzurkeria ...



AITA OKER DAGO **JUAN LUIS ZABALA**

**ERA ASKOTAKO
KONTAKETAK**

Ipuin guztietan ez bada askotan behintzat, aitarene bat agertzen da arazoak eta zailtasunak izaten, aitasunaren ondoriozkoak normalean, kasu askotan umorezko goeretan.



ZERTARA DATOZ MATERTARRAK? **IÑAKI ZUBELDIA**

IPUINA


Euskaldun bat Marten-en jarraipena. 10.000 martetar datoz Zarautza 50. urteurrena ospatzera. Munduko agintari guztiak bilduko dira bertan bake eta elkar-lan ituna sinatzen. Zientzia fikzioa.



SIBERIAKO NESKATILA AUSARTA **IÑAKI ZUBELDIA**

IPUINA


Saglana, 5 urteko neskatila, etxalde bakarti batean bizi da aitona-amonekin. Aitona itsuak Siberiako abestiak eta ohiturak erakutsi dizkio. Eta animalia basatiak mantsotzen. Amonak zaldi gainean ibiltzen eta animaliak gobernatzen. Gau batean amona konorterik gabe aurkitzen du sukaldean. Zer egin hura salbatzeko?



**LEIZE-ZULOKO
MISTERIOA
IÑAKI ZUBELDIA**

HAUR LITERATURA

Ainhoak 10 urte ditu eta ametsetan eginkizun zaila jaso du: Arrikruzko leize-zuloan dagoen lehoikumearen hezurdura bilatu eta amaren ondora eramatea, haren babesean egon dadin beti.



**KORRI, KURU, KORRI!
PATXI ZUBIZARRETA**

HAUR LITERATURA

Mediterraneoak historia gehiago dauzka ura baino. Etiopiatik Parisera bidean, jirafa batek 1827. urtean zeharkatu zuen. Kuruk ere gurutzatu berria du, baina nekez eta kostata, eta orain ospitale batean dago, kanpoan inauterriak ospatzen diren bitartean.



**PANTALEON BADOA
PATXI ZUBIZARRETA**

HAUR LITERATURA

Pantaleon elurrezko panpina bat da. Hotzaz eta paisaia zuriaz asperturik, basamortura joatea erabaki du, beroa eta koloreak ezagutzera. Eta arraunean joan behar izan du, eta oinez, eta bizikletaz. Natasha hartz zuri bat da, eta ezkutuka joan zaio atzetik, eta basamortura iristen lagundu dio.